

Haurren minbiziari buruzko ikerketa proiektuetarako laguntzak 2015

Esteka:

<https://www.aecc.es/Investigacion/Fundaci%C3%B3n%20Cient%C3%ADfica/Convocatorias/Paginas/AECCDetalleConvocatoria.aspx?c=50&tc=CI15&cc=CI1515&e=ABIERTA>

Helburua:

Deialdi honen helburua da AECC Fundazioak diru laguntzak ematea haurren minbiziari buruzko ikerketa proiektuetarako. Proiektu horiek Espainian eraman behar dira aurrera, oso-osorik, ikertzaile nagusi baten gidaritzapean.

Hautagaien betekizunak

Ikertzaile nagusiak baldintza hauek bete beharko ditu:

- Doktore titulua edo Osasun Prestakuntza Espezializatuko titulua edukitzea.
- Ahal dela, Espainian ikerkuntza zientifikorako gaitutako erakunde batean lan egitea.

Eskaeren betekizunak:

Ikerketa proiektuak honako informazio hau bilduko du gutxienez:

- **Ikerketa proiektuaren memoria:**
 - Memoria zientifikoa:
 - Memoria ekonomikoa:
- Emaizak zabaltzeko eta komunikatzeko plana.
- Proiektua egingo den ikerketa zentroaren adostasuna, honako hauek barne hartuz: ikerketa batzordearen edo ikastegiko zuzendaritzaren txosten arrazoitua eta haren edo dagozkion batzorde etikoen onarpen gutuna. Ikerketa Klinikoko Batzorde Etikoaren (CEIC) behin betiko gutuna eskatuko da laguntza adjudikatu ondoren. Eskaera egiteko, nahikoa izango da Batzordearen Ordezkaritzaren gutuna aurkeztea, ebaluatu beharreko proiektua bidali dela baieztatzen duena. Nolanahi ere, proiektuek, hasi aurretik, dagozkien lege baimenak izan beharko dituzte.
- **Currículum vitae:**
 - Proiektuaren ikertzaile nagusiarena, eta NANaren/pasaportearen jatorrizkoa, bi aldeetatik eskaneatua.
 - Ikerketa taldeko kide bakoitzarena.

Laguntzaren zenbatekoa:

AECC Fundazioak 150.000 euro gordin emango ditu hiru urtean proiektua aurrera eramateko (50.000 euro gordin urte bakoitzean). Laguntzak urtero berritu ahal izango dira.

Eskaerak aurkezteko epea:

2015eko **urtarrilaren 8ko** 15:00ak arte.

*Epe hau eskaera formala aurkezteko da. Eskaera nahitaez aurkeztu behar da, www.aecc.es web orrian horretarako jarritako bide elektronikoak erabiliz. Beraz, ikerketa taldeko buruak **abenduaren 23a** baino lehen bidali beharko du eskaera, eta horrela ez da arazorik sortuko Ikerketaren arloko errektoreordeak inprimakiak sinatzeko tramitearekin.*

Ebaluazio irizpideak:

AECC Fundazioak dagokion epean eta ezarritako baldintzak betez aurkeztutako ikerketa proiektuak aztertze eta ebaluatze aginduko dio Ebaluazio eta Prospektiba Agentzia Nazionalari (ANEP).

Proiektuak adjudikatzeko, funtsean, honako irizpide hauek hartuko dira oinarritzat:

- Proposatutako proiektuaren kalitate zientifikoa eta bideragarritasuna.
- Proiektuaren ikertzaile nagusiaren eta ikerketa taldeko kideen ibilbide zientifikoa, bereziki azken 5 urteetan egindako lanari dagokionez.
- Emaizak praktika klinikora eramanez ahal izatea epe ertain-luzean.
- Emaizak komunitate zientifikoari eta AECCri ezagutarazteko plana.

Eskaera egiteko prozedura:

Deialdian parte hartzeko eskaera egiteko AECC Fundazioaren inprimakiak erabili behar dira. Inprimaki horiek www.aecc.es web orrian eskura daitezke, gaztelaniaz. Eskaera aurkezteko, ikertzailea edo proiektuen kudeatzailea erregistratu egin behar da www.aecc.es web orrian.

Erregistratzeko prozesuan, erabiltzaileak ikerketa taldearen aukera hautatu behar du. Erregistratzeko prozesua amaitutakoan, erabiltzaileak pasahitz bat jasoko du, edozein eskaera telematikoki bidaltzeko beharrezkoa dena. Pasahitz hau adjudikazioa egin arte gordetzea gomendatzen dizugu.

Eskaera bakoitzak honakoak barne hartu beharko ditu:

- **Ikerketa proiektuaren memoria:**
 - Memoria zientifikoa:
 - Memoria ekonomikoa:
 - Emaizak zabaltzeko eta komunikatzeko plana edo proiektua egingo den ikerketa zentroaren adostasuna, honako hauek barne hartuz: ikerketa batzordearen edo ikastegiko zuzendaritzaren txosten arrazoitua eta haren edo dagozkion batzorde etikoen onarpen gutuna. Ikerketa Klinikoko Batzorde Etikoaren (CEIC) behin betiko gutuna eskatuko da laguntza adjudikatu ondoren. Eskaera egiteko, nahikoa izango da Batzordearen Ordezkaritzaren gutuna aurkeztea, ebaluatu beharreko proiektua bidali dela baieztatzen duena. Nolanahi ere, proiektuek, hasi aurretik, dagozkien lege baimenak izan beharko dituzte.
- **Currículum vitae:**
 - Proiektuaren ikertzaile nagusiarena.
 - Ikerketa taldeko kide bakoitzarena.

Eskaerak aurkeztea:

Eskaera ongi bidaliz gero, erabiltzaileak kode bat jasoko du, nahi duenean eskaeraren egoera kontsultatu ahal izateko.

Eskaera betetakoa, baliozkotu eta telematikoki bidali behar da. Ondoren, dokumentua inprimatu behar da, eta ikertzaile nagusiaren eta ikerketa taldeko kideen jatorrizko sinadurak jasoko dira bertan, eta, eskaneatuta, abenduaren 23a baino lehen, convocatorias.dgi@ehu.es helbidera bidaliko dira honako dokumentu hauek:

- Ikerketa programaren memoria
- Batzorde Etikoaren gutuna, hala badagokio.

Adostasun-gutunean erakundearen legezko ordezkariaren sinadura jasotzeko, halaber, Ikerketaren arloko errektoreordeari bidali beharko zaio dokumentua, jatorrizko sinadurekin, adierazitako data (2014ko abenduaren 23a) baino lehen.

Deialdian parte hartu nahi duten pertsonak mezu elektronikoa bidali behar dute lehenbailehen (helbidea: convocatorias.dgi@ehu.es), beren interesa adierazteko eta ikerketa taldearen datuak emateko, datuok egiaztatu ahal izan ditzagun.

PIU bateko kide direnek PIUko teknikariarekin jarri beharko dute harremanetan.

Informazio gehiago:

Hauk dira erakundearen (hau da, UPV/EHUren) datuak eskaera betetzeko:

IFK: Q4818001B

Helbide soziala: Sarriena auzoa, zk.g.

Posta kodea: 48940

Hiria: Leioa

Legezko ordezkaria: Fernando Plazaola Muguruza

Kargua: Ikerketaren arloko errektoreordea.

Harremanetarako pertsonak UPV/EHUen:

Tel.: 94 601 80 08

Helbide elektronikoa: convocatorias.dgi@ehu.es